

# Urdazubi eta Zugarramurdiko euskararen norabidea

ESTIBALITZ MONTOYA\*

## SARRERA

Urdazubi eta Zugarramurdi administrazioz nafarrak diren arren, hizkeraz lapurteraren barnean kokatu dira Bonaparteren sailkapenez geroztik. Lapurtar “jatorra” azpieuskalkiaren barruan, hiru hizkera multzo bereizi zituen: Sarakoa, Ainhoakoa eta Donibane Lohizunekoa. Sarakoan, Sara bera, Ahetze eta Senpererekin batera, Zugarramurdi eta Urdazubi sartu zituen. Ordutik hona, ikerlari gehienek (Azkue, 1905; Irigarai, 1957; Lafon, 1957 eta Irizarrek, 1981, 1997, besteak beste) antzeko proposamenak egin dituzte, eta Zugarramurdiko eta Urdazubiko euskara lapurteratzat jo da.

Pagolak, Nafarroako fonetika aztertzen duenean, Zugarramurdi berezia dela esaten du:

Zugarramurdi izan da berezien agertu den tokia. Egoera fonetiko aldakorra duen arren, ikusi ahal izan dugu, lekuko zahar bati esker, gertakizun fonetiko garrantzitsuenetan Lapurterarekin lotzen dela; gero Amaiur ere bai kasu batzutan, baina herrigune honetako hizkera Baztandarrean kokatzen da; Etxalar ere, Bortzirietakoa izanik, Iparraldearekin mugan dagoenez, giza harremanak ditu harekin eta hori zerbait isladatzen da hizketan ere (1992: 1, 285).

Ikertzaile honek, Zugarramurdi lapurteraren eta baztandarraren artean kokatzen dela gehitzen du (285).

Zuazok ere, Bonaparteren sailkapena aldatu duena eta sei euskalki proposatzen dituen (1998, 2003), Zugarramurdi eta Urdazubi nafar-lapurteraren barruan sartzen ditu, eta Baztan, berriz, nafarraren barruan baina nafar-lapurterari begira tarteko hizkera bezala.

\* EHU.

Eskerrak eman nahi dizkiot Koldo Zuazori egindako oharrengatik.

Nik ere, herri hauetako hizkera deskribatu eta aztertu ondoren (Montoya, 2004), nafar-lapurteraren barruan kokatu ditut, hegomendebala (Zugarramurdi, Urdazubi, Sara eta Ainhoa bereziki, baina baita Senpere eta Ahetze ere) gainontzeko nafar-lapurteratik banatzen dituen behin-behineko isoglosa multzoa aipatuz.

Iritzi desberdina dauka Sanchez-Carriónnek, Zugarramurdiko euskara honela definitzen duenak: “Subdialecto baztanés con préstamos léxicos del francés” (1972: 128).

## 1. MUGA HARREMANAK ETA HAUEN ERAGINA HIZKERAN

Euskalkiez gutxiengo ezagutzak dituen edonork badaki administrazioa eta hizkera batera ez joatea Euskal Herriko beste herri askotan ere aurki dezakegula (Bergaran, Oñatin, Luzaiden edo Leitzan, adibidez), eta hizkera hauen nolakotasuna azaltzeko hizkuntzaz kanpoko eragileak (orografia, kultura, ekonomia, eliza, gizartea...) erabakigarriak ohi direla.

Mapan ikus daitekeenez, Urdazubi eta Zugarramurdi Euskal Herria bitan banatzen duen mugatik oso gertu daude, baina Etxalarretik edo Amaiurretik ere (hizkeraz nafarrak) hurbil daude, eta Irun ere, adibidez, mugatik oso hurbil dago, baina hizkeraz ez da lapurtarra. Beraz, argi dago distantziak ezin duela gertakari hau erabat azaldu, eta honen atzean bestelako arrazoiak egon behar direla. Nire asmoa da hizkuntzaz kanpoko eragileak aurkitzea eta deskribatzea, eremuko hizkeren arteko loturak eta desberdintasunak azaldu ahal izateko.

Gure bi herriek mendeetan zehar mugaz bestaldeko Sararekin eta Ainhoarekin harreman handiak izan dituzte eta, oraindik ere, harremanok sendoak dira, eta horrela azaldu da, neurri handi batean, Zugarramurdi eta Urdazubi, hizkerari dagokionez, lapurtarrak izatea. Harreman honen lekuko, adibidez, *Xareta* elkarte da, Zugarramurdik, Urdazubik, Sarak eta Ainhoak osatzen dutena, eta ekintza kulturalak zein ekonomikoak (turismoa batez ere) bul-tzatzen dituen. *Xareta*, mendiz inguratutako eremu baten izena da:

Zugarramurdi es la parte meridional de Xareta, nombre legendario del territorio laburdino cercado por las montañas de Larrune, Atxulai, Suhamendi, Atxuria y Aitzparatz (Barandiaran, 1981: 321).

Beraz, Zugarramurdi eta Urdazubi Lapurdiko eremu honetan egoteak, mendiz inguratuta, ondoko herri lapurtarrekiko harremanak sendotzea ekarri du. Gainera, badakigu Ainhoak Urdazubirekin aspalditik izan dituela harremanak:

No menos enigmático resulta el artículo de la concordia (1482), en que el alcalde Jaureguizar niega al abad de Urdax «aquella fazez que di-ze ser suya». Se me figura que el monasterio las venía celebrando con sus vecinos labortanos, o al menos con los de Ainhoa, cuya rectoría dependió de su abad (Zudaire, 1968: 15).

La villa de Urdax, [...] viene celebrando facerías desde el 5 de mayo de 1954 con Saint-Pée-sur-Nivelle [...] y con el pueblo de Ainhoa [...] (Zudaire, 1967: 89).

Par la suite, les moines Augustins et Prémontrés d’Urdax, à l’étroit dans leur vallée encaissée, défrichèrent les vallons et les côteaux d’Ainhoa

et y fondèrent, comme à Zugarramurdi, une colonie agricole. [...] En 1802, Ainhoa se sépara définitivement du Royal Monastère (Elso, 1947: 424).

Par la suite, les habitants d'Ainhoa prirent l'habitude de se rendre, plus ou moins clandestinement, aux offices de la paroisse d'Urdax et c'est là que furent baptisés ou mariés de nombreux Ainhoars (Elso, 1947: 433).

Baina Sararekin eta Ainhoarekin ez ezik, Zugarramurdik eta Urdazubik Baztango herri batzuekin ere (Elizondo, Amaiur, Erratzu eta Arizkunekin) lotura berezia izan dute. Lotura honetan, feriek berebiziko garrantzia izan dute. Badakigu oraintsu arte Elizondon feria garrantzitsua izan dela, Baztan osoko bizilagunak eta Zugarramurdi nahiz Urdazubikoak erakartzen zituen. Are gehiago, badakigu Ipar Euskal Herriatik ere jendea joaten zela:

Ya hemos señalado que, en época de normalidad, acudían a su mercado desde los vecinos pueblos franceses de Alduides, Ainhoa, Baigorry, Urepel, etc. (Casas Torres, 1948: 29).

Elizak ere, berebiziko garrantzia izan du eremu honetako herrien arteko harremanak sendotzean. Baztango artzapezpikutegiak, Baztango herriak ez ezik, Zugarramurdi eta Urdazubi ere batzen ditu:

En el arciprestazgo de Baztán, que comprendía los pueblos del Valle de Baztán, excepto Oronoz, y los pueblos de Maya, Urdax y Zugarramurdi, todas las parroquias son vascongadas (Apat-Etxebarne, 1974: 20).

Gainera, elizak, mendeetan zehar, Ipar Euskal Herria eta Hego Euskal Herria lotu ditu, izan ere, Baztango artzapezpikutegia (Zugarramurdi eta Urdazubi barne) gaur egun Iruñeko elizbarrutiaren mende dagoen arren, 1566 urte arte Baionako elizbarrutiaren mende egon zen.

Beraz, Baztanek ere mugaz bestaldeko herriekin harreman sozioekonomikoak izan ditu. Harreman hauen berri gehiago, Zudairek ematen digu:

Zugarramurdi había pasado en lo canónico, de vicaría a priorato; en lo predial, de la enfiteusis a la posesión territorial, puesto que envía sus propios observadores a las facerías que Baztán va concertando con los fronteros labortanos (1968: 20).

Y el 14 de Octubre de 1847, en las facerías que concierta el valle de Baztán con Ainhoa, Itxassou y la villa de Urdax, interviene como otorgante don Joaquín Fagoaga, propietario del convento de Urdax y sus derechos (1968: 31).

Itun hauek, Fairén Guillének eskaintzen digun argibidearen arabera, Nafarroa Behereraino heldu ziren:

A tenor de lo previsto en el art. 14 del Tratado fronterizo de 2 de Diciembre de 1856, el valle de Baztán tiene concertadas con los pueblos franceses de Sare, Saint-Pée sur Nivelles, Ainhoa, Itxassou, Espelette y Bidarray, facerías quinquenales. De ellas, están excluidos, naturalmente, los pueblos españoles de Zugarramurdi, Urdax y Maya, independientes administrativamente de Baztán (1955: 509).

El Valle de Baztán tiene concertada otra facería con el francés Baigorry (1955: 511).

Muga aldeko harreman hauetan, garrantzi handia izan du kontrabandoak. Jarduera honek Zugarramurdi, Urdazubi, Baztan eta Ipar Euskal Herriaren arteko harremanak sendotu egin zituen. Kontrabandoaren berri ematen diguten adibideak ugariak dira, baina nik hemen bakarra aipatuko dut, jarduera honen antzinatasunaren lekuko:

Hacia 1524, los baztaneses conocieron a un ladrón de ganados, llamado Martín de Urdax, de este lugar. Robaba ordinariamente en Francia y pasaba sus rapiñas a España [...]. Las quejas procedían especialmente de la tierra de Labort, Sara y Zugarramurdi [...] (Idoate, 1984: 571).

Zugarramurdi, Urdazubi eta Baztan ez ezik, Bortzirietako Etxalar ere muga aldeko harreman hauetako partaide izan da. Ezin dugu ahaztu Etxalarrek Sararekin egiten duela muga, eta usotegiei esker, besteak beste, Sararekin lotura estuak izan dituela. Harreman hauek erakusteko, hona hemen testu esanguratsu batzuk:

[Etxalar] En sus montañas, lindando con la localidad vasco-francesa de Sara, cada otoño se repite el rito documentado desde el siglo XII de la caza de bandadas de palomas de paso [...] (Aierbe, 1989-91: VIII, 286).

The evasion of military service is a well developed pattern on both sides of the frontier [...]. Echalar served as a corridor for French Basque evaders and a prime source of persons who fled to France. [...] Barandiaran notes that between 1914 and 1918 some 75 young men fled from Sare to Navarra, and primarily to the towns of Zugarramurdi, Echalar and Vera (Douglass, 1977: 136).

In sum, the facerías, Palomeras and boundary commissions provide the bases for extensive and durable interaction between the communities of Echalar and Sare. Echalar shares more activities with Sare than with its continuous Spanish Basque communities. In many respects, then, the border actually stimulates contacts rather than impeding them (Douglass, 1977: 141).

Etxalarrekin ez ezik, Sarak, Bortzirietako Berarekin ere izan ditu harremanak:

Marchando desde la frontera Sara-Echalar hacia el Este, hay que anotar numerosos tratados de facería que se produjeron entre ambos pueblos [...]. Tampoco faltaron entre Sara y Vera de Bidasoa (Fairén Guillén, 1955: 509).

Beraz, mugaren inguruko herrien arteko harremanak nabarmenak izan direla ikus dezakegu, eta honen ondorioz, ulertzekoa da hizkeretan ere harreman horiek eragina izatea.

Hala eta guztiz ere, Urdazubik eta Zugarramurdik hizkuntzaz lotura estuagoa dute hurbileko herri lapurtarrekin Baztango edo Bortzirietako herrie-kin baino; orografiak, ondorengo datuek erakusten dutenez, gertakari hau azal dezake neurri handi batean.

Dagoeneko esan dugu Zugarramurdi eta Urdazubi administrazioz nafarrak direla, eta Baztanekin muga egiten dutela. Zehatzago esanda, nahiz eta politikoki Baztanen mende ez egon, haran honen zati dira. Altadillek hobeto azaltzen digu egoera hau:

Dentro del valle están comprendidos Maya, Urdax y Zugarramurdi, aunque son villas separadas (1916: II, 75).

Eta honela zehazten du “herri bereziak” zer diren:

Se denominan villas separadas y ciudades exentas las que, aún comprendidas en un distrito, partido judicial, merindad o valle, reciben órdenes administrativas o gubernativas directamente de las autoridades superiores y no del municipio, en cuyo valle o distrito se hallan enclavadas (1916: II, 75).

Ardaizek, klima, ekonomia mota edo faktore administratiboak bezalako ezaugarriak kontuan hartuz, Nafarroa 25 eskualdetan bereizten du. Hauetakoa bat, Baztan da, eta honen barne, Zugarramurdi eta Urdazubi daude:

Comarca formada solamente por tres municipios, aunque Baztán a su vez está formado por 14 lugares y la villa de Maya. Todos tienen similares características físico-climáticas e idénticas producciones agrarias. Elizondo (capital del Valle del Baztán) se revela como cabeza funcional, aun cuando existen problemas de accesibilidad para los municipios de Urdax y Zugarramurdi (1980: I, 185).

Testuak aitortzen duenez, Urdazubi eta Zugarramurdi apur bat aldendu-ta daude Baztandik eta are aldenduago, jakina, Iruñetik:

Los setenta y nueve kilómetros de distancia desde nuestra capital, Pamplona, por la carretera 121, con los puertos de Velate y de Otsondo de por medio, y la necesidad de tomar un pequeño ramal, cortísimo pero desvío al fin, para entrar en la población, contribuye a que Urdax sea un pueblo apenas conocido para los navarros (Zudaire, 1968: 3).

Egia esan, Zugarramurdi eta Urdazubi ez daude alboko herriekin ondo komunikatuta. Adibide bat jartzearen, aipa dezakegu ez dagoela gure bi herrietatik pasatzen den garraiobide publikorik. Nolabaiteko bakardade honek, segur aski, eragina izan du hizkeraren izaeran.

Bakardade hori ia erabatekoa izan behar zen Zugarramurdi eta Urdazubira Iruñetik joateko biderik ez zegoenean. Zudairek aipatzen digun errepedea, Iruñetik Baztan zeharkatuz Dantxarinearara doana, 1845.urte aldera amaitu zen. Errepide honek, garai hartan oso erabilia zen bidea, Frantziarakoa, alegia, erraztu zuen:

El otro gran proyecto de carretera por acciones es el del camino a Francia, a través del Baztán. Se trata igualmente de un proyecto largamente acariciado, puesto que se trataba de una ruta tradicional y utilizada. En 1841 se formó una comisión con representantes de los valles de Baztán, Bertizarana y Santesteban de Lerín, y las villas de Sunbilla, Lesaca, Vera, Echalar, Aranaz, Yanci, Maya y Urdax. Su propuesta y reglamento fue aprobado por la Diputación al año siguiente. Se trataba de construir un camino real desde Villava, que llevara por Velate a Elizondo y Dancharinea (Aierbe, 1989-91: 79).

Orain arte esandakoa laburbilduz, garbi ikusi dugu mugaren inguruko jarduerak Lapurdi, Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubi lotu egin dituela. Hala ere, ezin dugu ahaztu Zugarramurdik eta Urdazubik harreman estuagoak izan dituztela Sara eta Ainhoarekin Baztango herriekin baino, eta honen arrazoia, beharbada, orografian aurki dezakegula. Izan ere, Otsondoko mendateak, Baztan eta Zugarramurdi-Urdazubiren arteko harremanak zaildu egin ditu (gogoratu lehen aipatutako komunikazio arazoak). Sara edo Ain-

hoara joateko, berriz, ez dago horrelako oztoporik, eta lezeetatik doan aspaldiko bide naturala ere erabil daiteke.

Beraz, Douglasssek (1977: 141) aipatzen zuenez, gure ikerketan, uste dut argi geratzen dela muga geografikoak muga administratiboak baino indar haundiagoa duela eta hizkerak (lapurterak, kasu honetan) errazago zeharkatu duela bigarrena lehenengoa baino.

Amaitzeko, nabarmendu nahi dut Urdazubi eta Zugarramurdi Euskal Herria Estatu bitan banatzen duen mugatik gertu egotea oso onuragarria izan dela bertako euskararen iraupenerako. Bi herri hauetako hiztunek, euskara beharrezkoa izan dute Sara edo Ainhoako auzoekin harremanak egiteko, eta alderantziz; Baztango herrietako auzoekin, berriz, nahi izanez gero, gaztelera erabil zezaketen. Larrañagak argi azaltzen du gertaera hau:

Euskara mantentzeko arrazoi praktikoren bat dagoenean bizitza osoan gordetzen da. Horrela gertatzen da muga-inguruan kokaturik dauden eta bestaldekoekin harremanak dituzten udalerrietan (Zugarramurdi, Urdazubi, Etxalar, Luzaide e.a.) (1990: 0).

Hala ere, Zugarramurdin eta Urdazubin euskarari ondo eusten zaion arren, egoera aldatuz doa, eta auzoekin oraindik nagusiki euskara erabiltzen badute ere, frantsesak eta gaztelera gero eta indar handiagoa dute, eta beraz, gerta liteke urte batzuen buruan euskarak bere praktikotasuna galtzea eta harremanak egiteko nahitaezkoa izateari uztea.

## 2. GAZTELERA ETA FRANTSESAREN ERAGINA

Aurreko atalean Urdazubik eta Zugarramurdik Sara eta Ainhoarekin (izan) duten lotura estua nabarmendu dut, harreman sozioekonomiko sakon hauek euren hizkeran izan duten eragina aipatuz. Nolabait esateko, hizkeraren ezaugarriak eremu honek izan duen bilakaera historiko eta sozioekonomikoarekin lotzen saiatu naiz.

Hala ere, aipatu gabe utzi dut muga aldeko euskararen eragin handia duen, eta Zugarramurdi eta Urdazubi Sara eta Ainhoatik desberdintzen dituen ezaugarria: erdara. Denok dakigunez, urdazubiar eta zugarramurdien bigarren hizkuntza gaztelera da; Saran eta Ainhoan, berriz, frantsesa dute bigarren hizkuntza.

Egoera honen aurrean, **maileguen azterketak** datu interesgarriak eskain diezaizkiguke. Hego Euskal Herri osoan bezala, Zugarramurdin eta Urdazubin ere, gaztelertatik hartutako maileguak oso ohikoak dira:

<i>aiuntamiento</i> (& <i>udaletxea</i> )	<i>kukaratxa</i>
<i>alkatea</i>	<i>limona</i> “limoia”
<i>alkilatu</i>	<i>maestra</i>
<i>apellidoa</i> (& <i>deitura</i> )	<i>maestroa</i> “maisua”
<i>apuratu</i> (& <i>estutu</i> )	<i>mantekilla</i> “gurina”
<i>arroza</i>	<i>mareatu</i> (& <i>xoratu</i> ) “zorabiatu”
<i>basoa</i> “edalonzia”	<i>merendatu</i> “askaldu”
<i>belozidatea</i> (& <i>xixtu</i> )	<i>milagroa</i> “miraria”
<i>desaparezitu</i> “desagertu”	<i>nebera</i> “hozkailua”
<i>enterratu</i> “lurperatu”	<i>panaderia</i> “okindegia”
<i>eskribitu</i> “idatzi”	<i>pareta</i> “horma”

*esperatu* “itxaron”  
*faborez* (& *mesedez*)  
*[x]ustizia* “justizia”  
*ka[x]ona* “ka[x]oia”  
*kaltzetinak*  
*kandeleroa*  
*kanposantua* “hilerria”  
*kastigatu* “zigortu”  
*katezismoa* (& *dotrina*)

*plantxatu* “lisatu”  
*platera*  
*rebista* “aldizkaria”  
*tapatu* (& *estali*)  
*traza* (& *itxura*)  
*txorizoa*  
*txuloa* “harroa”  
*txutxeria* “gozokiak”  
*zinturona* “gerrikoa”

Dena dela, mendeetan zehar Zugarramurdiko eta Urdazubiko euskararen frantseko mailegu ugari ere sartu direla ikusiko dugu:

*afera* “arazoa”  
*afruxa* “ziztrina”  
*ankas(ka)* (& *badaezpada*)  
*bakantzak* “oporrak”  
*balota* “belar paketea”  
*betarraba* “erremolatxa”  
*bisaia* “aurpegia”  
*botika* (& *denda*, *tienda*)  
*bufitu* “puztu”  
*buzona* “botiletako kortxoia”  
*deliberatu* “erabaki”  
*ensaiatu* “saiatu”  
*espresa* “berezia, aproposa”  
*estomaka* “urdaila”  
*finitu* “amaitu”  
*fite* “laster”  
*furtxeta* “sardexka”  
*galdegin* “galdetu & eskatu”  
*ganbara* “logela”  
*gormanta* “gozozalea”  
*jusa* “zukua”  
*kaleria* “balkoi mota”

*kalla* “galeperra”  
*kokina* “zitala”  
*kulira* “koilara”  
*lapina* “untxia”  
*lunetak* “betaurrekoak”  
*luzerna* “alfalfa”  
*malura* (*maluroski*) “zoritxar(rez)”  
*martxanta* “sal-eroslea”  
*muntra* “erlojua”  
*partitu* “joan”  
*pastisa* “pastela”  
*pausatu* “atseden hartu”  
*ponpiera* “suhiltzailea”  
*puxatu* “bultzatu”  
*refeta* “besta errepikatzea”  
*roti* “haragi errea”  
*trefla* “hirusta”  
*trenpan eman* “uretari ipini”  
*tronpatu* “erratu”  
*uroski* “zorionez”  
*usaia* “ohitura”  
*xatoa* “gatzelua”

*Beti* aditzondoak ere, frantseseko *toujours* aditzondoak bezala, Zugarramurdin, Urdazubin eta Ipar Euskal Herriko hizkeretan, Hego Euskal Herrian duen esanahiarekin batera, *oraindik* ere adieraz dezake (*encore*). Gainera, bada frantsesetik hartutako beste aditzondo bat, *alo* (fr.< alors), Urdazubin eta Zugarramurdin noizean behin entzungo duguna.

Mailegu hauetariko batzuk (*afera*, *buzona*, *deliberatu*, *ensaiatu*, *estomaka*, *fite*, *kaleria*, *kokina*, *luzerna*, *pausatu*, *tronpatu*, adibidez) Baztanen eta Bortzirietan ere aurki ditzakegu.

Frantseseko mailegu hauek, seguraski, euskararen bidez sartu dira Zugarramurdiko eta Urdazubiko hizkeran, frantsesez batera ez dakitenek ere erabiltzen dituztelako.

Zenbaitetan, hitz bat adierazteko, frantseseko eta gatzelerako aldaerak erabiltzen dituzte gure bi herrietan. Adibide gisa, hona hemen bikote batzuk:

*bolanta / bolantea*  
*botika / tienda*  
*erretiratu / [x]ubilatu*  
*telefona / telefonoa*  
*ezantza / gasolina*  
*glasa / elaua*  
*kusina / lengusina*  
*lanjera / arriskua<sup>1</sup>*  
*lanjerosoa / peligr osoa*  
*maite / gustatu<sup>2</sup>*

*malura / pena*  
*matalaza / koltxona*  
*mustika / moskitoa*  
*papillona / mariposa*  
*postanobrea / zanaoria<sup>3</sup>*  
*trikota / jertsea*  
*trufa / txantxa*  
*turisma / turismoa*  
*xantza / suertea*

Esan behar da bikote hauetariko batzuetan, ordain bat bestea baino maiztasun handiagoz erabiltzen dela: *gasolina*, *mariposa* eta *zanaoria*, adibidez, *ezantza*, *papillona* eta *postanobrea* baino maizago entzungo ditugu, eta *glasa* edo *maite* ere, *elaua* eta *gustatu* baino sarriago.

Beraz, frantsesetik nahiz gazteleratik hartutako maileguk argi uzten dute hizkera honen berezitasuna eta muga ondoan izateak duen garrantzia. Zentzu honetan, nabarmentzekoak dira bi herri hauek eta Luzaidek (administrazioz nafarra dena eta hizkeraz Garazira egiten duena, [Salaberri, 2000: 251]) dituzten antzekotasunak.

Maileguen azterketa sakonagoak argi erakusten du gaur egun eragina leixikala Hegoaldetik eta ez Iparraldetik datorrela, izan ere, Zugarramurdiko eta Urdazubiko euskaraz frantseseko maileguak ugariak izan arren, hitz berriak, gazteleratik hartzen dira:

## FRANTSESEKOAK

*lapina*  
*lunetak*  
*furtxeta*  
*afera*  
*kokina*  
*kusina*  
*trefla*  
*luzerna*  
*usaia*  
*muntra*  
*puxatu*  
*bisaia*  
*afruxa*  
*gormanta*  
*kulira*  
*xatoa*  
*balota*

## GAZTELERAKOAK

*periodikoa*  
*kuadernoa*  
*ordenadorea*  
*grabatu*  
*aparatoa*  
*ingresatu*  
*pinturak*  
*tankea*  
*supermerkado*  
*kamilla*  
*asignatura*  
*folletoa*  
*labadora*  
*kamareroa*  
*inpuestoak*  
*rekreoa*  
*markapasos*

<sup>1</sup> Ipar Euskal Herrian *irriskua* aldaera ere arrunta da.

<sup>2</sup> Hego Euskal Herrian bi hitzak erabiltzen dira, bakoitza adiera batekin. Ipar Euskal Herrian, berriaz, frantseseko *aimer* aditzaren eraginez (“maite”, “gustatu”), *maite* da bakarra.

<sup>3</sup> *Postanobrea* hitza (edo *pastenagrea*, *paxtenarria*) Ipar EH osoan ezaguna den ez dakit, baina Saran, Ainhoan, Azkainen eta ekialderagoko Larresoron eta Baigorriin ere, behinik behin, erabiltzen da. Hauetan, *karrota* (< fr. carotte) mailegua ere ohikoa da.



Ondoko Saran eta Ainhoan arruntak diren frantseseko mailegu berriagoak ez dira Zugarramurdi eta Urdazubin erabiltzen: *journals* “egunkaria”, *arribatu* “heldu”, *bulanjeria* “okindegia”, *burra* “gurina”, *punitu* “zigortu”, *tauliera* “amantala”, *bitesa* “abiadura”, *tanta* “izeba”, *xarpantera* “zurgina” edo *irrizza* “arroza”. Adibide hauetariko batzuk oso esanguratsuak dira, eta mugaren bi aldeetako erdara bera ez izateak azken urteotan muga aldeko hizkeretan sortutako desberdintasunak agerian uzten ditu:

	SARA	URDAZUBI-ZUGARRAMURDI
“zigortu”	<i>punitu</i>	<i>kastigatu</i>
“gurina”	<i>burra</i>	<i>mantekilla</i>
“okindegia”	<i>bulanjeria</i>	<i>panaderia</i>
“abiadura”	<i>bitesa</i>	<i>belozidada</i>
“egunkaria”	<i>journals</i>	<i>periodikoa</i>

Orain arte mailegutza lexikoa baizik ez dut aipatu. Hizkuntzalari askok (Camino, 1997; Rafel, 1974; Sánchez-Carrión, 1974; Silva-Corvalán, 1988; Trudgill, 1986) nabarmendu dute atal hau dela hizkuntzetan mailegutza onartzen duen lehenengoa, hiztegia ez delako fonologia edo morfologia bezain egonkorra, eta hitzunek errazago antzematen dituztelako hiztegi mailako desberdintasunak morfologia eta sintaxi mailakoak baino. Hala ere, ezaguna da lexikotik kanpo ere hizkuntzen arteko eraginak gertatzen direla:

Même entre adstrats non-apparentés, la grammaire d’une langue peut changer sous l’influence d’une langue modèle (par voie d’emprunt) (Haase, 2002: 115).

Urdazubin eta Zugarramurdi ere, mailegu lexikoak askoz ugariagoak diren arren, fonologia, morfologia eta sintaxi mailako mailegutza ere gertatzen da. Mailegu horiek frantsesetik nahiz gazteleratik hartuak dira.

• IGURZKARI BELARE AHOSKABEA: [x]

Euskal hitzetan [x] ahoskera ez da batere ohikoa, eta hitz hasieran nahiko ondo eusten zaio [j] ebakerari: *jakin, jan, josi, jautsi* “jaitsi”, *jinkoa, jokoa...* Hitz barruan, zenbaitetan agertzen da [x] ebakera: *giza[x]oa, i[x]ittoa, ko[x]oina* “erlauntza”. Maileguetan, berriz, soinu hau hitz barruan eta hitz hasieran askotan aurkituko dugu: *tatua[x]e, paisa[x]e, refle[x]oa, [x]ustizia, [x]efea, [x]enerala...* Mailegu zaharretan salbuespenak agertzen dira: *frigitu* (igurzkari belare ahoskuna), *baxera* ([j]), *perrexila* [j], *lixiba* ([j], baita *le[x]ia* ere).

Ondoko Saran, ordea, [x] soinua ez da arrunta, eta horrela, Zugarramurdi eta Urdazubin *[x]enerala, bir[x]ina, [x]untatu, [x]eneralean* eta *laran[x]a* esaten dira, baina Saran, berriz, *jenerala, birjina, juntatu, jeneralean* eta *liranja* entzungo ditugu. *Juntatu* Zugarramurdi eta Urdazubin ere noizean behin entzun daiteke.

Frantseseko *lanjerosoa* (< dangereux, “arriskutsua”), *lanjera* (< dangera, “arriskua”) eta *jusa* (< jus, “zukua”) maileguetan Zugarramurdi eta Urdazubin [j] ahoskatzen dute.

Berri samarrak izan daitezkeen maileguak kontuan hartzen baditugu, ikusiko dugu hauei esker [x] ahoskera gero eta ohikoagoa dela gure bi herrietan: *e[x]emplo, kon[x]eladorea, espon[x]a, gara[x]e, ur[x]entzia, emorra[x]ia, [x]erentea, [x]ardineria...* Salbuespen gisa, *journals* “soldata” entzun dut.

Beraz, mugaren bi aldeetako erdara berbera ez izateak, kontsonante honen ebakeran ere eragina du. Denok dakigunez, frantsesez ez dute [x] ahoskera ezagutzen, eta gazteleraz, ordea, guztiz arrunta da. Honek azalduko luke Zugarramurdin eta Urdazubin [x] ebakera Saran baino indartsuagoa izatea.

• TXETXEKARI AFRIKATUA: [T]

Ipar Euskal Herrian, lapurteraz eta behe-nafarreraz batez ere, ohikoak dira hitz hasierako txetxekari frikariak [ʃ]. Baztanen ere, behinik behin, badira (Zuazo, 1998: 211). Zugarramurdin eta Urdazubin, frikariak erabiltzen dira hitz hasieran: *xoria*, *xinaurria*, *xigortu*, *xitua*, *xixtua*, *xokoa*, *xaala* “txahala”, *xapela*, *xirula*... Salbuespen gisa, hiru hitz aipatu behar dira: *txikia* (baita *tti-kia* eta *tipia* ere), *txarra* (“txikia”) eta *txarra* (“gaiztoa”, berez gutxi erabiltzen den hitza).

Txetxekari afrikatuaren ordeaz, txetxekari frikariak gain, [s] bizkar hobietakoa ere ager daiteke Zugarramurdi zein Urdazubiko euskaran: *zingarra* “urdaiazpikoa”, *zistorra*, *zerria*, *zakurra*, *zokorra* “txekorra”, *zapela*. Erabilera honek ez du inolako balio adierazgarririk.

Bizkar hobietakoa txetxekari frikaria baino hedatuago dago, eta Ibarrek, adibidez, Ultzaman ere entzun zuen; hori bai, berak ikusi zuen txetxekaria (afrikatua, jakina) emakumeek erabiltzen zutela eta gizonak, berriz, [s] (Ibarra, 1995: 273). Zugarramurdin eta Urdazubin ez dut holakorik sumatu, eta emakumeek nahiz gizonak erabiltzen dute [s] ebakera inolako balio adierazgarririk gabe. Izan ere, hori dute aukera bakarra, hots, *zerria* entzungo dugu, baina ez *txerria* edo *xerria*. Eta berdin *zakurra*, *zistorra* eta *zokorra* hitzekin. *Zingar zuria* / *xingar xuria* “urdaia” bikotean, berriz, nahiz eta lehenengo aukera arruntagoa izan, soinu biak entzun daitezke.

Beraz, Zugarramurdin eta Urdazubin hitz hasierako txetxekari afrikatua saihesteko joera dagoela esan dezakegu, eta horretarako bi aukera daudela: <x> (Ipar Euskal Herrian gehienbat agertzen dena) eta <z> (hedatuago dagoena).

Hala ere, aipatu behar da hasierako *tx*-kontsonantea Zugarramurdiko eta Urdazubiko euskaran gero eta ugariagoa dela, Hego Euskal Herri osoan bezala, mailegu berriak gazteleratik eta euskara batutik hartzen direlako:

<i>txantxa</i> (& <i>trufa</i> )	<i>txipa</i>
<i>txartela</i>	<i>txistua</i>
<i>txubaskeroa</i>	<i>txorradak</i>
<i>txankletak</i>	<i>txarkuteria</i>
<i>txilindron</i>	<i>txistea</i>
<i>txutxeria</i>	<i>txabola</i>
<i>txorizoa</i>	<i>txatarra</i>
<i>txuloa</i>	<i>txuskoa</i>
<i>txiklea</i>	<i>txupa-txusa</i>
<i>txokolatea</i>	

Honek, jakina, Ipar Euskal Herriatik alden du egiten du aztergai dugun hizkera. Frantseseko *xatoa*, *xantza* eta *xanpiñona* maileguetan jatorrizko txetxekari frikaria gorde da, baina berriagoak diren *txoferra* eta *txaleta* –frantsetik ere har zitezkeenak– gazteleratik hartu dira, eta honen ondorioz, txetxekari afrikatua agertzen da.

Gainera, aldentzea bi zentzutan gertatzen da: batetik gazteleratik fonema berriak heltzen direlako, eta bestetik, frantsetik Ipar Euskal Herriko hizkera-tara iritsi diren fonemak Zugarramurdi eta Urdazubin ohikoak ez direlako:

- Ipar Euskal Herri osoan ohikoa den [R] ebakera ubularea ez da gure bi herrietan gertatzen, nahiz eta noizbait entzuten zaien lanean edo eskolan Ipar Euskal Herrian ibili direnei. Ezaugarri honi dagokionez, Salaberrik (2000: 237) egoera beretsua aurkitu du Luzaiden: hara ere ez da hedatu.

- Ipar Euskal Herrian [f] ebakera agertzen da frantsesez <v> ezpain horz-karia duten maileguetan (Zuazo, 1999: 255). Egia da Zugarramurdi eta Urdazubin *fite* (fr. vite) eta *ferdea* (fr. vert) maileguak badirela. Lehenengoa sal-buespenik gabe agertzen da eta, bigarrenak, *berdea* ere, maizago gainera, ba-du alboan. Baina Ipar Euskal Herrian ohikoak diren *koperatifa* edo *aperitifa* bezalakoak ez dira bertan ezagunak.

Dena den, gerta liteke ezaugarri honek Ipar Euskal Herri osoan indar be-ra ez izatea: Saran, behinik behin, *berdea* esaten da (*EAEL*), eta *fite*, baina *bi-tesa* (fr. vitesse).

• PORZENTAIK ADIERAZTEKO ESAPIDEA

Destinatiboko morfema nagusia Zugarramurdi eta Urdazubin *-(r)endako* da, nahiz eta *-(r)entzat* ere ezaguna izan. Destinatiboak dituen erabileetatik, porzentaiak adierazten dituen esapidea nabarmendu nahi dut: *berrogeitama-bortz e[x]uneindako* “ehuneko berrogeita hamabost”, *amar e[x]uneindako* “ehuneko hamar”. Saran (*amar eunentzat*) eta Larresoron-Uztaritzen ere (*zazpi e[x]unendako*), behinik behin, destinatiboa erabiltzeko aukera ezaguna da (Epelde, 2004). Elizondon *egunetik amar* “ehuneko hamar” egiturarekin batera, *egunendako amar* ere entzun dut. Egitura honen atzetik, beharbada, frantsesaren eragina egon daiteke, frantsesez “vingt pour cent” bezalakoak di-tugulako eta *pour* preposizioak, oro har, onuraduna adierazten duelako eta, beraz, *norendako* kasuaren parekoa delako.

• GELDITU -T(Z)ETIK EGITURA

Urdazubin eta Zugarramurdi “-t(z)eari utzi” adierazteko, *gelditu -t(z)etik* egitura erabiltzen da:

“gero fumatzetik gelditu zen”  
 “izan baitzuen biotzekoa, edatetik gelditu zen”

Egitura hau Saran ere entzun dut, eta Uztaritzen ere, behintzat, erabiltzen da. Mugatik hurbil dagoen Baztanen, ordea, ez da erabiltzen, eta *fumatzea utzi* bezalakoak entzungo ditugu bertan. Honek guztiak iradokitzen du *gelditu + -t(z)etik* egituraren atzean frantsesaren eragina egon daitekeela (“arrêter de”).

Perifraasi hau ez da berria, Axular urdazubiarrak XVII. mendean dagoene-ko erabiltzen zuelako.

• JENDEA HITZA PLURALA

*Jendea* singularra nahiz plurala izan daiteke Zugarramurdi eta Urdazubin:

“badakite jendeek laueta idekitzen dutela tienda”  
 “errateute bi-iru mila jendeak ibiltzen diela”  
 “emen ere eguerditan jendea ateratzen da”

Amaiurren, N'Diayek (1970: 126) honakoa jaso zuen: *iende elegante batzuekin bizi omen da*. Nafarroa Beherean ere oso arrunta da *jendea* pluralez erabiltzea (Pagola, 1984). Saran ere bai. Zuberoako Eskiulan ere bada (*EAEI*).

Baliteke *jendea* pluralez erabiltzearen atzetik frantsesaren eragina egotea, izan ere, frantsesez *gens* plurala da. Eragin hau ez litzateke berria, Axularrek berak ere *jendea* pluralean erabiltzen zuelako.

Bada, hala ere, *gens* eta *jendeak* hitzen erabileraren artean desberdintasun bat: Zugarramurdi eta Urdazubiko euskararen behinik behin, *iru mila jendeak* bezalakoak arruntak dira, baina ez ordea, frantsesez, *\*trois milles gens* tankerakoak.

• GAZTELERAKO *-DAD* ETA FRANTSESEKO *-TÉ* AMAIERAK

Gaztelerako *-dad* amaierak *-dade* eman ohi du Zugarramurdiko eta Urdazubiko euskararen: *belozidadea*, *kalidadea*, *inutilidadea*, *soziedadea*, *posibilitadadea*, *aktibidadea*, *peligrosidadea*, *kontabilidadea*, *umedadea*, *sanidadea*, *abildadea*, *kasualidadea* (*kasualitatea* ere bai zenbaitetan), *espezialidadea*, *kantidadea*. Salbuespenak: *komoditate*, *borondate*. Morfema hau Hego Euskal Herri osoan da nagusi; ondorengo adibideak Elizondon jaso ditut: *belozidadea*, *kalidadea*, *libertadea*, *soziedadea*.

Ipar Euskal Herrian, berriz, *-dade* amaierak ez dirudi ohikoa, eta honen ordez, *-tate* agertzen da. Larresoron *kalitate*, *libertate*, *natibitate* eta *umitate* aldaerak badaude (Epelde, 2004). Neuk ere Saran *-tate* amaiera jaso dut: *kontabilitatea*, *kalitate*, *sozietatea*, *posibilitatea* eta *aktibitatea*. Izan ere, ezin dugu ahaztu frantsesez gaztelerako *-dad* amaieraren ordaina *-té* dela: *calidad / qualité*, *sociedad / société*.

• *-CA* ETA *-VA* AMAIERAK ERDERAKO MAILEGUETAN

Kontsonantez (edo kontsonantea + *e* mutua) amaitutako frantses mailegu multzo zabal baten gaztelerako ordainek bokala dute amaieran: adb. *équipe / equipo*. Banaketa honek desberdintasunak sortu ditu Ipar Euskal Herriko eta Hego Euskal Herriko hizkeren artean. Izan ere, determinatzailea eranstea, *-Ca* (*ekipa*) tankerako emaitzak dauzkagu Ipar Euskal Herri osoan, eta *-Va* (*ekipoa*) tankerakoak, berriz, Hego Euskal Herrian. Zugarramurdin eta Urdazubin –askotan aukera biak topatu ditudan arren– Ipar Euskal Herrian bezala, *-Ca* amaiera nagusi da: *estomaka* (fr. estomac), *telefona* (gazteek *telefonoa*; fr. téléphone), *mustika* (eta *moskitoa*; fr. moustique), *diferenta* (eta *diferentea*; fr. différent), *turisma* (eta *turismoa*; fr. tourisme), *anbulantza* (fr. ambulance), *pasaporta* (fr. passeport), *bolanta* (eta *bolantea*, fr. volant), *klianta* (fr. client), *zimenta* (fr. ciment), *minuta* (fr. minute), *martxanta* (fr. marchand), *erregistra* (fr. registre)... Salbuespen bezala, *kilometroa*, *ekipoa* eta *presidentea* jaso ditugu, gazteleratik hartuak (*-Va*, beraz).

• *ATZO ETORRI DA* BEZALAKOAK

Iraganaldi burutuko aditz laguntzaileak erabili beharrean, orainaldi burutua erabiltzean datza. Ez da Urdazubin eta Zugarramurdin oso joera indartsua, baina lantzean behin jaso dut:

“astelenean ez nintzen sartu, eta gero atzo ez nau utzi sartzerat”  
 “gero, atzo, ez die gan”  
 “dena arrimatuko zaitut, atzo ekarri nau arrebak au”  
 “atzo atera da telebisionean”

Eremuari dagokionez, Zuazok (1998: 212) esaten du Ipar Euskal Herriko ezaugarria dela, eta bere atzean, beharbada, frantsesaren eragina egon daitekeela.

Ipar Euskal Herrian betetzen den ezaugarri hau Zugarramurdira eta Urdazubira indartsu ez hedatzeak gaur egun bi aldeetako harremanak ez direla hain estuak erakusten du.

• BAINA JUNTAGAILUA

Hego Euskal Herrian *baina* eta *baizik* bereizten diren bitartean, Ipar Euskal Herrian, *baina* juntagailuak betetzen du sarri bien lekua (Zuazo, 1999: 260). Ezaugarri hau argiago ikusteko, har ditzagun gure bi herrietan jasotako adibideak:

“ez da berria, bainan arrimatua”

“kendu zioten ura, bueno ez kendu, baina urtuazi”

Honako adibide hau *Euskal Herriko Hizkuntz Atlaseko* soinuuzko datuetan aurkitu dut (*baina* = *baizik*): *etzen berarekin eskondu abeatsa zelakotz, baina maite zuelakotz* (D.P.: Zugarramurdi, 94480).

Gertakari honen atzean, Azkuek (1925: 490) adierazi zuen bezala, frantseseko *mais* juntagailua egon daiteke.

Aurkaritza adierazten duen *baina* juntagailuak, Urdazubin eta Zugarramurdin lau aldaera izan ditzake: *baina*, *bainan*, *baino* eta *bainon*.

Baztanek Ipar Euskal Herriarekin (izan) duen harremana ezaugarri honekin ere ikus dezakegu. Elizondon, esate baterako, zenbaitetan jaso dut *bainan* juntagailua *baizik* adierarekin.

• MORFOSINTAXIAREN MAILAKO INTERFERENTZIAK

Urdazubi eta Zugarramurdiko hizkeran gazteleratik zuzen-zuzenean, inolako egokitzerik gabe, hartutako esapideak entzun daitezke. Hona hemen adibide batzuk:

“igandetako ekarriko ute *aunke sea* Elizondotik”

“*asi ke* e(g)iazki direktiba orrek ez du manatzen”

“*eske* ez baduzu galderarik egiten...”

Aukera hauek (*aunke sea*, *asi ke*, *eske*) ez dira erabilienak, hiztunak normalean euskarak eskaintzen dizkion baliabideak erabiltzen dituelako, baina noizean behin (batez ere jende gaztearen artean) entzun daitezke. Honek adierazten du gazteleraren eragina Urdazubiko eta Zugarramurdiko euskaran gero eta indartsuagoa dela.

Ipar Euskal Herrian ere, antzeko gertaerak aurki daitezke, baina han eragina frantsesetik dator. Mugaz bestaldeko hizkerak behar bezala ezagutu ez arren, Saran *mais* (/mɛ/) “baina” juntagailua askotan entzun dut: “Zu, frantsesa!, *mais* ez dute gaxtoki eRaten”. *EAE*Lko datuen arabera, juntagailu hau oso hedatuta dago Ipar Euskal Herrian (Hendaia, Urruña, Bidarte, Ahetze, Uztaritze, Zudaire...). Ipar Euskal Herriko testuak aztertuz gero, frantseseko interferentzia gehiago topatuko ditugu: Barkoxen /mɛm/ (<fr. même) “baita ere” agertzen da (Euskaltzaindia, 1999: 185), eta Eskiulan *parce que* /paRskə / zergatizkoa (*EAE*L, II, 284).

*Mais*, *même* edo *parce que* bezalakoak ez dira Urdazubin eta Zugarramurdin erabiltzen.

### 3. ALDAERA DIASTRATIKOAK

Orain arte, Zugarramurdiko eta Urdazubiko euskararen norabidean eragina izan dezaketelakoan, gaztelertatik eta frantsestik hartutako maileguak aztertu ditugu. Atal honetan, norabidea asmatzen segitzekotan, aldaera diastratiko zenbait erakutsiko ditut. Horretarako, bi aldagarri soziolinguistiko aipatuko ditut: bizibidea eta adina.

*Adinaren* aldagarria *bizibidearen* baino eragingarriagoa da Zugarramurdin eta Urdazubin. Izan ere, adinekoentzat ezagunak (eta batzuetan arruntak) diren zenbait egitura, gazteentzat ezohikoak edo ezezagunak dira. Hauen artean, ondorengo ezaugarriak aipa daitezke:

- Hitz barneko hasperenaren aztarnak gazteen artean adinekoen artean baino gutxiagotan entzuten dira. Gazteek, *zaarra*, *aula*, *eun* edo *beatu* erabiltzen dituzte gehienbat, eta adin handiagokoek, berriz, *zagarra*, *agula*, *egun* / *e[x]un* eta *begatu*. *A[x]oa* “ahoa” eta *o[x]ea* “ohea” aldaeretan, berriz, gazteek ere hasperenaren aztarna gorde dute.

- Hurbiltze adlatiboa adierazteko, “izena + *aldera(t)*” egitura erabiltzen da Zugarramurdin eta Urdazubin. Adineko askok –baina oso gazte gutxi– “*-ri buruz*” egitura ere ezagutzen dute.

- Gutxitan bada ere, adineko hiztunek, “*-ren ondoan*” postposizioarekin batera, “*-tik lekura*” ere erabiltzen dute denbora adierazteko (*mezatik lekura*). Gazte gehienek, ordea, ez dute azken hau ezagutzen.

- (*E*)no denborazkoa adinekoek baino ez dute erabiltzen, eta hauek ere gutxitan. Gazteek “partizipioa + *arte(an)*” dute aukera bakarra.

- “Laguntzailea + partizipioa” hurrenkera ez da Zugarramurdin eta Urdazubin ohikoa, eta adineko hiztunek baino ez dute erabiltzen. Aukerarik erabiliena –eta gazteek baliatzen dutena– “partizipioa + laguntzailea” da.

- Lexikoan ere, jakina, argi ikus daiteke aspaldiko ohiturekin eta lanekin lotuta dauden hitz asko zaharrek baino ez dituztela ezagutzen eta, beraz, galtzeko arriskuan daudela (*arri zurruta* “harraskaren azpiko harria”, *xalma* “astoei mina ez egiteko kakolen azpian ipintzen zaiena”, *maira* “ogia egiteko mahai berezia”, *kabila* “gurteak duen ziria”...).

*Bizibideari* dagokionez, aipatu behar da Zugarramurdiko eta Urdazubiko lagun askok, gaztetan, Frantzian lan egin dutela (neskame-morroiak, basoan, habe elektrikoak hedatzen...) eta hauetariko batzuegan frantsesak eragindako aldaerak (gainontzeko bizilagunek normalean erabiltzen ez dituztenak) aurkitu ditudala: dardarkari ubularea, frantsesetiko mailegu gehiago (*jurnala* “egunkaria”, *papillona* “tximeleta”, *mertzerik* “eskerrik”...). Izan ere, honelako migrazioek eragin zuzena izaten dute hizkeran (Zuazo, 2003: 12-13).

### 4. URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO EUSKARAREN NORABIDEA

Paule Ivić-ek, 1962ko artikuluan, dialektoen arteko desberdintasuna aztertzean, ikergai nagusia desberdintasunaren egitura izan behar dela aipatzen du. Hori dela eta, Ivić-en proposamenaren arabera, isoglosen fisonomia, berritasuna edo norabidea bezalako kontzeptuek dialektoen arteko loturak eta dibergentziak argitu ditzakete.

Aurreko ataletan, Urdazubiko eta Zugarramurdiko euskarak mugaz bestaldeko hizkerekin dituen desberdintasun zenbait aipatu ditut. Oraingoan, Ivić-en teoriak ikerketa honetara ekarriz, dibergentzia hauen norabidea asmatzen saiatuko naiz. Zeregin honetan, aztertu ditudan hiru ezaugarrietan (muga harremanak, erdaren eragina, aldaera diastratikoak) erakutsitako argibidea izango dut gidari.

• MUGA HARREMANAK

Nahiz eta Urdazubik eta Zugarramurdik Sara eta Ainhoarekin oraindik harreman estuak izan, esan behar da gure bi herriek mendeetan zehar Ipar Euskal Herriarekin izan duen lotura ahulduz doala, eta denbora berean, Hego Euskal Herriarekiko harremana gero eta indartsuagoa dela. Gertakari hau ulertzeko, oso kontuan hartu behar dugu tradizionalki mugaren alde biak lotu dituzten jarduerak desagertuz doazela (feriak, abeltzantzarekin lotutako lanak, kontrabandoa, sasoi-lanak...). Hitzunek berek azaldu didate lotura hori lehen estuagoa zela eta, horren lekuko, ezkontzak aipatzen dituzte. Izan ere, duela urte batzuk muga administratiboa gainditzen zuten ezkontzak ohikoagoak ziren. Honek, jakina, gazte urdazubiar eta zugarramurdialrek bestaldeko gazteekin gero eta harreman ahulagoa dutela adierazten du.

Gertaera hau mendeetan zehar Ipar Euskal Herriarekin lotura izan duten Nafarroako beste ibar batzuetan ere ikus daiteke: Bortziriak, Malerreka, Bertizarana edo Baztan haranek gero eta gehiago begiratzen diote Nafarroari. Horretarako arrazoietakoa batzuk, Zuazoren ustez (2003: 98), Ipar Euskal Herriko ekonomiaren gainbehera eta Frantziak eta Espainiak euren arteko mugak zorrotzago egin izana izan daitezke.

• ERDEREN ERAGINA

Bigarren atalean erakutsi dudanez, Urdazubi eta Zugarramurdiko euskarari bai gaztelararen bai frantsesaren eragina nabarmena da. Hala ere, maileguen eta interferentzien azterketak argi uzten du gaur egun gaztelararen eragina frantsesarena baino indartsuagoa dela.

Izan ere, ezin dugu ahaztu gure bi herrietako bigarren hizkuntza gaztelera dela, eta beste aldekoa, berriz, frantsesa. Egia da urdazubiar eta zugarramurdial asko hirueledunak direla, baina hiru hizkuntza jakin arren, bi baino ez dituzte normalean erabiltzen: euskara eta gaztelera. Frantsesa beharrezkoa dutenean baino ez dute erabiltzen, frantsesekin aritzeko, alegia. Badirudi, beraz, gaztelera eta frantsesa erabiltzearen atzean arrazoi desberdinak daudela. Frantsesa erabiltzeko arrazoia elkar-ulertzeko beharra da. Gaztelararen kasuan, ostera, ez dago horrelako beharrik, euskaldun direnekin ere erabiltzen dutelako. Elebitasun honen atzean prestijioa egon daiteke. Kontuan hartu behar dugu oraintsu arte eskolatzea gaztelaraz izan dela, eta gaztelarak duen indarra egunero ikusten dutela kanpotik datozen turistengan nahiz herria utzi duten eta asteburuetan bisitan etortzen diren lagunengan.

Beraz, esan dezakegu prestijioa eragin handikoa dela gaztelera erabiltzeko orduan eta egoera diglosikoak egunero gertatzen direla. Esaterako, euskara etxean kalean baino gehiago erabiltzea diglosiarekin lotutako gertakaria izan daiteke (Sánchez-Carrión, 1974: 66).

Dena dela, esango nuke hiztun askorentzat hasierako eragile hau desagertu egin dela eta orain ohituraz erabiltzen dutela gaztelera. Ezin ukatzekoa da euskaldunen kopurua Urdazubin eta Zugarramurdin oso ugaria izan arren (1991ko datuen arabera, %89'6koa eta %98'9koa, hurrenez hurren; Zabaleta, 1995: 57, 61), gaztelera entzutea ez dela zaila.

Zer esanik ez, gaztelera indartzeak ez dauka Zugarramurdiko eta Urdazubiko euskararentzat inolako onurarik, eta gainera, Ipar Euskal Herritik urruntzen du bi herri hauetako hizkera.

• ALDAERA DIASTRATIKOAK

Oro har, ikusi dugun bezala, esan daiteke adinekoek zenbait ezaugarri adierazteko egitura bat baino gehiago dituztela aukeran: *-(e)no* eta “partizipioa + *artean*” denborazkoak; “*-tik lekura*” eta “*-ren ondoan*” postposizioak, esaterako. Gazteek, ostera, bakarra ezagutzen dute. Gainera, gehienetan, gazteek erabiltzen duten egitura hori Hego Euskal Herrian zabalduena da. Badirudi gazteengan erdialdeko hizkeretara hurbiltzeko joera gero eta nabarmenagoa dela. Nolanahi ere, gertaera hau lehenagotik datorren bilakabidearen emaitza izan daiteke, nire ustez. Hau da, egia da adinekoek askotan aukera bat baino gehiago dutela gauza bat adierazteko, baina eurek ere, gehienetan, ez dituzte aukera guztiak maiztasun berean erabiltzen eta gazteek joera horri segitu baino ez diote egin. Adinekoek gutxitan erabiltzen dituzten egiturak gazte askok galdu egin dituzte erabat.

Bada adinekoen eta gazteen artean aurki dezakegun beste desberdintasun bat. Oro har, gazteek (neskek, nabarmenago), adinekoek baino maizago jotzen dute gaztelera. Dena dela, badira gehienetan gaztelera aritzen diren adinekoak eta euskaraz hitz egiteko ohitura duten gazteak. Honetan –nahikoa garbi, gainera– *adina* eta *bizibidea* aldagarriak gurutzatzen dira. Kanpotik datozen turistekin harreman handiak dituztenek, adinekoek nahiz gazteek, errazago jotzen dute erdarara. Izan ere, bi herri hauetan turismoa ekintza garrantzitsua da, eta jende askori ematen dio lana. Arlo honetan ari den jendeak, nahitaez, harreman handiagoak ditu kanpotik datozen bisitariekin, eta hauek gaztelera, frantseserik edo bertakoa ez den euskaraz hitz egiten dute. Nekazaritzan eta abeltzaintzan lan egiten duten bizilagunak (gehienak), ostera, urrunago daude kanpotik datozen eraginetatik eta hau laster ikusten da hizkuntzaren erabileran: hauek, oro har gutxiagotan jotzen dute erdarara.

Askotan –ez, ordea, beti– bizitokiak ere zerikusia du bizibidearekin eta euskararen erabilerarekin. Gunean bizi ez direnek gehienbat, nekazaritzan lan egiten dute eta, arestian esan bezala, euskara baino ez dute erabiltzen euren artean.

Orain arte aipatutako guztia kontuan hartuz, beraz, esan behar dugu Urdazubi eta Zugarramurdiko hizkeraren *norabidea* Hego Euskal Herrirantzakoa dela. Honetaz guztiaz gain, bi herri hauetako hizkeraren norabidea gidatzen duten ezaugarri oro aztertu nahi izanez gero, ezin dugu EUSKARA BATUAren eragina ahaztu.

Guztiok dakigu gaur egun, oro har, euskalkien *etorkizuna* kolokan dagoela; egoera Ipar Euskal Herriko hizkeretan are kezagarriagoa da (Oihartzabal, 1997; Larrañaga, 1989), neurri handi batean, ofizialtasun ezak hizkuntza suspertzeko ahaleginak oztopatzen dituelako. Gainera, euskarak oso indar



txikia dauka Ipar Euskal Herriko hirietan, eta honek, hizkuntzak behar dituen prestijioa eta garrantzia lortzeko zailtasunak handitu egiten ditu.

Ipar Euskal Herrian, arazo politiko, ekonomiko nahiz demografikoek (Oihartzabal, 1997: 39) euskararen ahulezia larritu egiten dute. Egoera aldatzen ez bada, Ipar Euskal Herriko hizkeren iraupena arrisku bizian egongo da. Zentzu honetan, hezkuntzan egin diren azkenengo aurrerapausuak itxaropentsuak izan daitezke.

Badira, ordea, lapurtera, behe-nafarrera eta zuberera jendeari helarazten saiatzen diren elkarteak. *Gure Irratia*, *Irulegiko Irratia* eta *Xiberoko Botza* irratietan, adibidez, tokian tokiko hizkerak entzuten dira, eta probintzien arteko harremanak sendotzeko, euskalki bat baino gehiago erabiltzen dute aipatutako irratietan. Harreman hauek muga zeharkatzen dute. Eta, esate baterako, hiru irrati horiek zenbait emankizun dituzte Baztango *Xorroxin* irratiarekin batera (Bidart, 1996: 53). Beraz, Zugarramurdiko eta Urdazubiko lagunek badute lapurtera entzuteko aukera.

Zugarramurdi eta Urdazubin, hala ere, euskaraz den komunikabide garrantzitsuena *Euskal Irrati Telebista* da. Komunikabide honetan esatari gehienak gipuzkoarrak dira, eta egiten den euskaraz, nahiz eta batua izan, oinarria gipuzkera da (Etxebarria, 1996: 551).

Komunikabideetako hizkerak hiztunengan izan dezakeen eraginaz Trudgillek hitz egiten du. Bere ustez, hiztunak ez du bere hizkuntza telebista edo irratia hizkerara oharkabean egokitzen, baina nahita imita dezake. Dena dela, badirudi eragina lexikoan dela, fonologian edo sintaxian baino indartsuagoa:

[...] There is one situation where core syntax and phonology can be influenced by the media. This is where, for example, there is considerable linguistic distance between a national standard and local dialects [...] and individual dialect speakers have made a conscious decision to acquire the standard. Then they may use the language of the media as a model: again, imitation and copying is the mechanism involved, and not accommodation (1986: 41).

Badirudi, gainera, hemendik aurrera komunikabideen indarra gero eta sakonagoa izango dela isoglosen hedadura eta hizkeren arteko harremanak aztertzerakoan:

[...] a través de los poderosos medios de comunicación [...]. Una innovación de la lengua se da a conocer tanto en un núcleo urbano importante como en la aldea más alejada, cosa que no había ocurrido nunca a lo largo de los siglos (Veny, 1992: 209).


Eragin txikiagoa edo handiagoa izan, ukatu ezina da komunikabideek euskara batua Euskal Herri osoan ezagutzen lagundu dutela, eta Zugarramurdi nahiz Urdazubi ez direla gertakari honetatik kanpo geratu.

Beraz, esango nuke Zugarramurdiko eta Urdazubiko hizkera orain arte nahiko ondo gorde den arren, hurrengo urteetan bizitza zailagoa izango duela. Batetik, erdarak, gazteen artean batez ere, gero eta indar handiagoa dauka. Bestetik, euskara batuaren eragina gero eta nabarmenagoa da (telebista, irratia, egunkariak, liburuak, eskola...) eta kontuan hartzen badugu Zugarramurdi eta Urdazubi Gipuzkoatik gertu daudela, erraz ulertuko dugu euskalki horrek Zugarramurdiko eta Urdazubiko euskaraz eragina izatea.

## BIBLIOGRAFIA

- AIERBE, E. (arg.), 1989-91, *Ibaiak eta haranak*, 8. liburukia: Navarra, 10 liburuki, Etor, Donostia.
- ALTADILL, J., 1916, *Geografía del País Vasco-Navarro*, 6 liburuki, Bartzelona.
- APAT-ETXEABARNE, 1974, *Una geografía diacrónica del Euskara en Navarra*, Colección Diario de Navarra, Iruñea.
- ARDAIZ, J., 1980, *Navarra, elementos para su estudio regional*, 2 liburuki, Eusko Ikaskuntza.
- AZKUE, R. M., 1905-1906, *Diccionario Vasco-Español-Francés*. 2. arg. La Gran Enciclopedia Vasca (LGEV), Bilbo [1969].
- , 1925, *Morfología vasca*. 2. arg. LGV, Bilbo [1969].
- BARANDIARAN, J. M., 1981, “De la población de Zugarramurdi y sus tradiciones”, *Obras Completas*, 21, 321-373.
- BIDART, J., 1996, “Euskara batua / euskalkien erabilera Iparraldeko hiru euskal irratietan”, *Euskera*, 41: 2, 541-546.
- BONAPARTE, L. L., 1869, *Le verbe basque en tableaux*, Londres.
- CAMINO, I., 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- , 1998, “Zer dago dialektologiaren gibelean?”. In I. Camino (arg.), *Nafarroako hizkerak*, 111-144, UEU, Bilbo.
- CASAS TORRES, J. & ABASCAL GARAYOA, A., 1948, *Mercados geográficos y ferias de Navarra*, Institución Príncipe de Viana y Estación de Estudios Pirenaicos, Zaragoza.
- COYOS, J. B., 1999, *Le parler souletin des Arbailles. Un approche de l'ergativité*, L'Harmattan, Paris.
- DAVANT, J. L., 1996, “Euskalkien eta euskara batuaren arteko harremana nolakoa den Iparraldean”, *Euskera*, 41: 2, 531-540.
- DOUGLASS, W. A., 1977, “Borderland Influences in a Navarrese Village”. In W. A. Douglass, R. W. Etulain & W. Jakobsen (arg.), *Anglo-American Contributions to Basque Studies: Essays in Honour of Jon Bilbao*, 135-145.
- DUHAU, H., 1993, *Hasian hasi. Beskoitzeko euskara*, Alinea, Donibane-Lohizune.
- , 2003, *Hasian hasi. Beskoitzeko euskara. “Birdena” edo Bigarren partea*, Akoka, Donibane-Lohizune.
- ELSO, M., 1947, “Le Royal Monastère de San Salvador d’Urdax”, *Eusko Jakintza*, 3: 4, 421-433.
- EPELDE, I., 2004, *Larresoroko euskara*, EHU-ko Doktorego Tesia. Argitaratu gabea.
- ESNAOLA, I., 1998, “Gazteen hizkera hemen eta orain”. In F. Rodríguez, & I. Esnaola (arg.), *Euskara mintzatuaren erronkak*, 117-134, EHU, Donostia.
- ETXAIDE, A. M., 1984, *Erizkizundi Irukoitzza, Iker 3*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- ETXEABARRIA, I., 1996, “Euskalkiak EITBn: Orain arteko jokabidea eta ondoriak”, *Euskera*, 41: 2, 547-555.
- EUSKALERRIA IRRATIA & MUJIKA, M., 1990-1993, *Nafarroako euskaldunen mintzoak I-II*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- EUSKAL HERRIKO ATLAS ETNOLINGUISTIKOA, 1983-1990, Aranzadi Zientzia Elkarte, Donostia.
- EUSKALTZAINDIA, 1999, *Euskal Herriko Hizkuntz Atlas. Ohiko euskal mintzamoldeen Antologia (EHHA)*, liburua eta 4 CD), Euskaltzaindia, Bilbo.
- , *EHHAko soinuzko materiala*, Euskaltzaindia, Azkue Biblioteka (argitaratu gabea).
- FAIRÉN GUILLÉN, V., 1955, “Sobre las facerías internacionales en Navarra”, *Príncipe de Viana*, 61, 507-524.
- FOURQUET, F., 1988, *Planification et développement local au Pays Basque*, Ikerka, Baiona.
- GOIENETXE, M., 1947, “Lexicographie de la maison à Ainhoa, Urdax et Zugarramurdi”, *Ikuska*, 1, 212.
- HAASE, M., 1990, “Erdal hitzen mailegatzea Iparraldeko euskaraz”, *Euskera*, 35, 405-415.
- , 2002, “Basque et Gascon en Basse-Navarre”, in *Hommage à Jacques Allières*, 109-117, 2 liburuki, Atlantica, Angelu.
- IBARRA, O., 1995, *Ultzamako Hizkera: Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- IDOATE, F., 1984, *Rincones de la Historia de Navarra*, Institución Príncipe de Viana, Nafarroako Foru Aldundia, 3 liburuki.

- IRIGARAI, A., 1957, "Observaciones al artículo de Pedro de Yrizar «Sobre la exploración lingüística del País Vasco, 1955»", *BAP*, 13: 2, 247-249.
- IRIZAR, P., 1981, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, 2 liburuki, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa, Donostia.
- , 1997, *Morfología del verbo auxiliar labortano*, EHU & Euskaltzaindia, Iruñea.
- IVIĆ, P., 1962, "On the structure of dialect differentiation", *Word*, 18, 33-53.
- IZETA, M., 1996, *Batzango hiztegia*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- JIMENO JURÍO, J. M., 1998, *Navarra, Gipuzkoa y el Euskera*, Pamiela, Iruñea.
- LAFITTE, P., 1962, (2.arg.), *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire)*, Amis du Musée Basque et Ikas, Baiona.
- LAFON, R., 1957, "En vue d'une enquête linguistique sur les parlers basques de France", *BAP*, 13: 1, 2-8.
- LARRAÑAGA, I., 1989, "Euskara Ipar Euskal Herrian", *Jakin*, 54 zb., 121-147.
- , 1990, "Nafarroako egoera demolingüistikoa", *Jakin*, 56 zb., 35-71.
- MITXELENA, K., 1977, *Fonética Histórica Vasca*, (2.arg. osatua), *ASJU*-ren gehigarriak, 4, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- MONTOYA, E., 2004 (inprimatzen), *Urdazubi eta Zugarramurdiko euskara*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- N'DIAYE, G., 1970, *Structure du dialecte basque de Maya*, Mouton, The Hague-Paris.
- OIHARTZABAL, B., 1997, "La situation de la langue basque en Pays Basque Nord", *Lapurdum* 2, Baiona, 29-43.
- PAGOLA, R. M., 1984, *Euskalkiz euskalki*, Eusko Jaurlaritza.
- , 1992, *Euskal fonetika Nafarroan*, 2 liburuki, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- RAFEL, J., 1974-75, "Áreas léxicas en una encrucijada lingüística", *Revista de Filología Española*, 57, 231-275.
- ROMAINE, S., (arg.), 1982, *Sociolinguistic Variation in Speech Communities*, Arnold, London.
- SALABERRI, P., 2000, "Luzaideko euskara, Mezkirizkoaren eta Aezkoakoaren argitan". In K. Zuazo (arg.), *Dialektologia gaiak*, 223-259, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.
- SALABURU, P., 1984, *Hizkuntz teoria eta Batzango euskalkia: Fonetika eta fonologia*, 2 liburuki, EHU, Leioa.
- SÁNCHEZ-CARRIÓN, J. M., 1972, *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970)*, Príncipe de Viana, Nafarroako Foru Aldundia, Iruñea.
- , 1974, "Bilingüismo. Diglosia. Contacto de Lenguas", *ASJU*, 7, 3-79.
- SIEGEL, J., 1993, "Dialect contact and koineization", *International Journal of the Sociology of Language*, 99, 105-121.
- SILVA-CORVALAN, C., 1988, *Sociolingüística. Teoría y Análisis*. Alhambra Universidad, Madril.
- TRUDGILL, P., 1986, *Dialects in contact*, Blackwell, Oxford.
- , 1988, "On the role of dialect contact and interdialect in linguistic change". In J. Fisiak (arg.), *Historical Dialectology. Regional and Social*, 547-563, Mouton de Gruyter, Berlin-New York-Amsterdam.
- VENY, J., 1992, "Fronteras y áreas dialectales". In G. Aurrekoetxea & X. Bidegain (arg.), *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak*, *Iker* 7, 197-247, Euskaltzaindia, Bilbo.
- ZABALETA, F., 1995, *Euskara Nafarroan. 1991ko biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuaren datu soziolingüistikoak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- ZUAZO, K., 1998, "Euskalkiak, gaur", *FLV*, 30 (78 zb.), 191-233.
- , 1999, "Baigorriko euskara kokatzeari buruz", *Lapurdum*, 4, 247-277.
- , 2003, *Euskalkiak, herriaren lekukoak*, Elkar, Donostia.
- ZUDAIRE, E., 1967, "Facerías de la cuenca Baztán-Bidasoa", *Príncipe de Viana*, 106-107 eta 108-109, 61-69, 161-241.
- , 1968, "Monasterio de Urdax", *Navarra: temas de cultura popular*, 122, Nafarroako Foru Aldundia.



Zugarramurdi eta Urdazubi. Inguruko herriak

### LABURPENA

Urdazubi eta Zugarramurdiko hizkeraren norabidea erakustea izan da ikerlan honen helburua. Muga harremanak, gaztelera eta frantsesaren eragina eta aldaera diastratikoak aztertu ondoren, bi herri hauetako euskara Ipar Euskal Herriko hizkeretatik aldentzen ari dela ikusi dugu. Aldi berean, euskara batueraren eskutik, besteak beste, erdialdeko hizkeretara hurbiltzeko joera gero eta nabarmenagoa da urdazubiar eta zugarramurditarren artean.

### RESUMEN

El objetivo de esta investigación es mostrar la evolución del habla de Urdazubi y Zugarramurdi. Tras analizar las relaciones fronterizas, la influencia tanto del castellano como del francés y las variantes diastráticas, he constatado que el euskera de estos dos pueblos se está alejando progresivamente de los dialectos del otro lado de la frontera.

Al mismo tiempo, y debido, entre otros factores, a la influencia del euskera unificado, la tendencia hacia las hablas centrales es cada vez más notable.

### RÉSUMÉ

Le but de ce travail de recherche est de montrer l'évolution de la langue de Urdazubi et de Zugarramurdi. Après avoir analysé les rapports frontaliers, l'influence aussi bien du français que de l'espagnol et les variantes diastrati-

ques, j'ai constaté que l'euskara de ces villages est peu à peu en train de s'éloigner des dialectes de l'autre côté de la frontière.

En même temps, et comme conséquence, parmi d'autres facteurs, de l'influence de l'euskera unifié, la tendance vers les langues centrales est de plus en plus marquée.

#### ABSTRACT

The aim of this study is to show the evolution of the language spoken in Urdazubi and Zugarramurdi. After investigating the border relationships, the influence of both Castilian and French, and the diastatic variants, it can be seen that the Basque language spoken in these two villages is gradually moving away from the dialects spoken on the other side of the border.

Meanwhile, and due, among other factors, to the influence of the unified version of the Basque language, the tendency towards speech from central areas is becoming increasingly marked.